

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

**ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI
BURUZKO ESTADISTIKA**

2019ko urteko txostena

Emaita nagusiak

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko
Estatistika Organo Berezia



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

2019an, emandako lizentzia-kopuruari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta, antzeko zifrak eman dira. Hala ere, beste beherakada bat erregistratu da eraikuntza berriko lizentzietan, eta leundu egin da birgaitzeko lizentzietan lortutako kopuruek gora egin dutelako, haien maximo historikora iritsi baitira.

2019an emandako lizentzien bolumena %0,8 jaitsi da 2018arekin alderatuta. Hala ere, 2013tik izandako susperraldia mantendu egin da; izan ere, 2013an 2.145 lizentzia eman ziren, eta 2019an, berriz, 3.304. Hala ere, 2019ko lizentzien bolumena urrun dago oraindik 2004tik 2006ra bitarteko urteetako kopuruetatik.

2005. urtea hartzen bada erreferentziazat (urte horretatik aurrera nabarmen hasi zen ikusten lizentzia-kopuruaren murrizketa), 2019ko kopuruak 402 lizentzia gutxiago eman zirela adierazten du. Termino erlatiboetan, 2005etik 2019ra bitartean emandako lizentzien urteko kopuruen beherakada deigarria da oraindik ere (-%10,8).

1. Taula Obra handiko lizentziak urteka, obra-motaren arabera. 1998-2019

(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak %etan)

Euskadi	Guztira		Oinplano berria		Birgaitzea		Eraispena	
	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza
1998	3.374		1.795		1.522		57	
1999	3.361	-0,4	1.798	0,2	1.499	-1,5	64	12,3
2000	3.424	1,9	1.756	-2,3	1.594	6,3	74	15,6
2001	3.414	-0,3	1.680	-4,3	1.643	3,1	91	23,0
2002	3.086	-9,6	1.447	-13,9	1.574	-4,2	65	-28,6
2003	3.101	0,5	1.489	2,9	1.544	-1,9	68	4,6
2004	3.700	19,3	1.590	6,8	2.002	29,7	108	58,8
2005	3.706	0,2	1.570	-1,3	2.025	1,1	111	2,8
2006	3.618	-2,4	1.654	5,4	1.862	-8,0	102	-8,1
2007	3.474	-4,0	1.399	-15,4	1.979	6,3	96	-5,9
2008	3.133	-9,8	1.024	-26,8	2.019	2,0	90	-6,3
2009	2.034	-35,1	578	-43,6	1.407	-30,3	49	-45,6
2010	2.602	27,9	675	16,8	1.863	32,4	64	30,6
2011	2.883	10,8	660	-2,2	2.174	16,7	49	-23,4
2012	2.380	-17,4	447	-32,3	1.909	-12,2	24	-51,0
2013	2.145	-9,9	351	-21,5	1.746	-8,5	48	100,0
2014	2.585	20,5	390	11,1	2.133	22,2	62	29,2
2015	2.744	6,2	444	13,8	2.240	5,0	60	-3,2
2016	3.145	14,6	518	16,7	2.567	14,6	60	0,0
2017	3.087	-1,8	459	-11,4	2.563	-0,2	65	8,3
2018	3.329	7,8	475	3,5	2.778	8,4	76	16,9
2019	3.304	-0,8	436	-8,2	2.800	0,8	68	-10,5
2006-2013 Aldakuntza	-1.473	-40,7	-1.303	-78,8	-116	-6,2	-54	-52,9
1999-2019 Aldakuntza	-57	-1,7	-1.362	-75,8	1.301	86,8	4	6,3
2005-2019 Aldakuntza	-402	-10,8	-1.134	-72,2	775	38,3	-43	-38,7
2006-2019 Aldakuntza	-314	-8,7	-1.218	-73,6	938	50,4	-34	-33,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019


Higiezinaren krisiaren inpaktuak kalte handia egiten dio eraikuntza berriari, eta onuragarria da birgaitzeko lizentzietarako. 2019an, eraikuntza berriko lizentzien kopuruak %8,2 egin zuen behera 2018arekin alderatuta. Kopuru hori (436 lizentzia) oso urrun dago 1998-2006 aldian eman ziren eraikuntza berriko 1.500 lizentzietatik.


Eraikuntza berriko lizentzien beherakadaren hasiera aztertuz gero (2006tik 2007ra bitartean gertatutakoa), 2006an 1.654 lizentzia eman ziren, eta 2019an, berriz, 436. Horrek 2006an baino 1.218 lizentzia gutxiago eman zirela esan nahi du, hau da, %73,6 gutxiago.

Bestalde, birgaitzeko lizentzien analisiak eraikuntza berriko lizentzien portaera bestelakoa dela erakusten du. Egiaztatu da, oro har, eraikuntza berriko lizentzien bolumenaren beherakada konpentsatzen dela birgaitzeko lizentzien gorakadarekin.


1. grafikoa Obra handiko lizentzia kopurua obra motaren eta urtearen arabera. 1998-2019

Balio absolutuak





Portzentajeazko banaketa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019

2009ko salbuespenarekin (1.407 birgaitze-lizentzia), 2004. eta 2013. urteen artean 1.800-2.000 lizentzia erregistratu ziren. 2013tik aurrera, jarduerak gora egin du berriro 2019ra arte, urte horretan lortu baitzen 1998tik izandako baliorik handiena (2.800 lizentzia). Azken urte honetan, 2018ko datuekin alderatuta, igoera %0,8koa izan da.



Eraispenei dagokienez, argi eta garbi pisu txikia izan dute lizentziek, eta 2005. eta 2019. urteen artean -%38,7ko beherakada izan da. Azken urte horretan tipologia horretako 68 lizentzia eman ziren guztira, 2018an emandako 76 lizentziak baino pixka bat gutxiago.

2. Taula Eraikuntza berriko eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera, obra-motaren arabera. 1998-2019

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza %etan)

Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Eraikuntza berria		Birgaitzea		Eraikuntza berria		Birgaitzea		Eraikuntza berria		Birgaitzea	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza
1998	590		411		705		865		500		246	
1999	616	4,4	432	5,1	705	0,0	904	4,5	477	-4,6	163	-33,7
2000	648	5,2	404	-6,5	608	-13,8	997	10,3	500	4,8	193	18,4
2001	548	-15,4	439	8,7	663	9,0	950	-4,7	469	-6,2	254	31,6
2002	513	-6,4	327	-25,5	549	-17,2	950	0,0	385	-17,9	297	16,9
2003	513	0,0	267	-18,3	545	-0,7	944	-0,6	431	11,9	333	12,1
2004	573	11,7	421	57,7	623	14,3	1.186	25,6	394	-8,6	395	18,6
2005	525	-8,4	493	17,1	644	3,4	1.155	-2,6	401	1,8	377	-4,6
2006	604	15,0	550	11,6	642	-0,3	923	-20,1	408	1,7	389	3,2
2007	526	-12,9	588	6,9	535	-16,7	977	5,9	338	-17,2	414	6,4
2008	368	-30,0	588	0,0	386	-27,9	1.028	5,2	270	-20,1	403	-2,7
2009	223	-39,4	525	-10,7	180	-53,4	650	-36,8	175	-35,2	232	-42,4
2010	226	1,3	715	36,2	283	57,2	883	35,8	166	-5,1	265	14,2
2011	214	-5,3	829	15,9	256	-9,5	1.063	20,4	190	14,5	282	6,4
2012	134	-37,4	664	-19,9	183	-28,5	942	-11,4	130	-31,6	303	7,4
2013	110	-17,9	565	-14,9	150	-18,0	891	-5,4	91	-30,0	290	-4,3
2014	113	2,7	558	-1,2	179	19,3	1.203	35,0	98	7,7	372	28,3
2015	129	14,2	572	2,5	178	-0,6	1.244	3,4	137	39,8	424	14,0
2016	137	6,2	659	15,2	243	36,5	1.380	10,9	138	0,7	528	24,5
2017	128	-6,6	644	-2,3	202	-16,9	1.462	5,9	129	-6,5	457	-13,4
2018	136	6,3	664	3,1	216	6,9	1.530	4,7	123	-4,7	584	27,8
2019	133	-2,2	673	1,4	178	-17,6	1.541	0,7	125	1,6	586	0,3
2005-2019 aldakuntza	-392	-74,7	180	36,5	-466	-72,4	386	33,4	-276	-68,8	209	55,4
2006-2019 aldakuntza	-471	-78,0	123	22,4	-464	-72,3	618	67,0	-283	-69,4	197	50,6


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019

Nolanahi ere, eraikuntza-sektorearen krisiaren ondorioz, erabat aldatu da emandako obra handiko lizentzien tipologia: eraikuntza berriko lizentziek behera egin dute, birgaitzeko obretan gero eta parte-hartze handiagoa izatearen alde. 2019an, azken horiek guztizkoaren %84,7 dira, 2018koa (%83,4) baino 1,3 puntu gehiago. Izan ere, 2019an lortu zen birgaitzeko lizentzien ehunekorik handiena EEElk betetako aldian. Ez dator bat 2003. urtearen aurreko urteetan ikusitakoarekin, horietan lizentzia mota horren pisu erlatiboa ez baitzen guztizkoaren %50era iristen.

Eraikuntza berriko lizentziei dagokienez, kontrakoa gertatzen da: 2019ko gutxieneko ehunekoa lortzen da (%13,2), 2018koa baino pixka bat txikiagoa (%14,3). Eraisteko bakarrik emandako lizentzien kasuan, proportzioa ez da gehiegi aldatu urteetan zehar, eta ez da ia aldatu urtero ematen diren lizentzien %1-3ren artean.

Azken urteko lurralde-dinamikak ere elementu espezifiko garrantzitsu batzuk eskaintzen ditu. Eraikuntza berriko lizentziei dagokienez, Gipuzkoan %1,6ko igoera arina izan da; Bizkaian eta Araban, berriz, %17,6 eta %2,2 egin du behera, hurrenez hurren. Birgaikuntzaren kasuan, lurralde guztietan goranzko joera txiki bat erregistratu da: %0,3 Gipuzkoan, %0,7 Bizkaian eta %1,4 Araban.

2. grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika.1998 - 2019



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2019an, bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentzien kopuruak pixka bat gora egin zuen (+%1,6), eta bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako emandako lizentzien ehunekoak behera egin zuen (-% 7,5), eta eragin negatiboa izan zuen jarduera-sektore guztiei lotutako ekintzetan. Edonola ere, datuek 2005ean erregistratutakoak baino nabarmen txikiagoak izaten jarraitzen dute.

2018tik 2019ra bitartean bizitegi-erabilerarako obretarako lizentzien kopuruak hobera egin duen arren (+%1,6), obra handietarako lizentzien epe ertain eta luzeko dinamikaren azterketak erakusten du, egungo jarduera krisiaren aurreko aldiekin alderatuz gero, bilakaera negatiboa esanguratsua dela oraindik.

3. Taula Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera (*) 1998-2019

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza %etan)

Urtea	Bizitegia		Bizitegiak bestelakoa							
			Bizitegiak bestelakoa. Guztira		Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza		Industria eta energia		Zerbitzuak	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop. ^o	Aldakuntza
1998	2.217		1.100		192		314		594	
1999	2.196	-0,9	1.101	0,1	153	-20,3	258	-17,8	690	16,2
2000	2.250	2,5	1.100	-0,1	129	-15,7	258	0,0	713	3,3
2001	2.239	-0,5	1.084	-1,5	164	27,1	278	7,8	642	-10,0
2002	2.118	-5,4	903	-16,7	116	-29,3	271	-2,5	516	-19,6
2003	2.343	10,6	690	-23,6	118	1,7	180	-33,6	392	-24,0
2004	2.801	19,5	791	14,6	113	-4,2	207	15,0	471	20,2
2005	2.773	-1,0	822	3,9	105	-7,1	244	17,9	473	0,4
2006	2.693	-2,9	823	0,1	103	-1,9	213	-12,7	507	7,2
2007	2.592	-3,8	786	-4,5	118	14,6	208	-2,3	460	-9,3
2008	2.268	-12,5	775	-1,4	125	5,9	209	0,5	441	-4,1
2009	1.472	-35,1	513	-33,8	80	-36,0	131	-37,3	302	-31,5
2010	1.774	20,5	764	48,9	110	37,5	143	9,2	511	69,2
2011	2.081	17,3	753	-1,4	106	-3,6	130	-9,1	517	1,2
2012	1.704	-18,1	652	-13,4	103	-2,8	155	19,2	394	-23,8
2013	1.556	-8,7	541	-17,0	107	3,9	123	-20,6	311	-21,1
2014	1.793	15,2	730	34,9	125	16,8	134	8,9	471	51,4
2015	1.908	6,4	776	6,3	117	-6,4	183	36,6	476	1,1
2016	2.263	18,6	822	5,9	93	-20,5	190	3,8	539	13,2
2017	2.280	0,8	742	-9,7	69	-25,8	221	16,3	452	-16,1
2018	2.491	9,3	762	2,7	86	24,6	210	-5,0	466	3,1
2019	2.531	1,6	705	-7,5	73	-15,1	200	-4,8	432	-7,3
2005-2019 aldakuntza	-242	-8,7	-117	-14,2	-32	-30,5	-44	-18,0	-41	-8,7
2007-2019 aldakuntza	-61	-2,4	-81	-10,3	-45	-38,1	-8	-3,8	-28	-6,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019


(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak

Horrela, 2019an bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopurua oraindik txikiagoa da, 2005ean erregistratutakoa baino %8,7 txikiagoa. Bizitegikoak ez diren proiektuei buruzko jardueran, aldiz, beherakada handiagoa izan da aldi horretan (-%14,2), eta beherakada nabarmenak izan dira lehen sektorerako eta industria eta energiara bideratutako lizentzietan. 2019an, lehen sektorerako emandako lizentziak 2005ean emandakoak baino %30,5 txikiagoak izan ziren; murrizketa hori %18koa izan zen industrian eta energian, eta %8,7koa zerbitzuen sektorean.


Datu historikoek, bestalde, lizentzien kopuru handiak edo lizentzien errekupeazioa ezaugarri dituzten aldiak bizitegi-erabilerarako lizentzien ehunekorik handienekin lotzen direla erakusten dute. Hala, bizitegi-erabileraren pisua %76tik gorakoa da 2003tik 2007ra emandako lizentzien gehieneko aldian, eta %78ra iristen da 2004ko gorakada handian. 2019an, mota horretako lizentzien proportzioa, emakiden guztizkoarekiko, serieko maximora iritsi zen 1998tik, %78,2ra.

3. grafikoa Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera. 1998-2019

Balio absolutuak



Portzentajezko banaketa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019



(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak

Bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako lizentzien artean, egiaztatu da epe luzera emandako lizentzia gehienak zerbitzuen sektorearekin lotutako jardueretara bideratzen direla, eta edizio guztietan 1998an ikusitako %54 gainditu da. Lortutako maximoa 2011koa da; urte horretan, sektore horrek bizitegi-erabilerarako ez diren helburuetarako emandako lizentzien %68,7 jaso zituen.

2018an erregistratutako datuekin alderatuz gero, ez dago aldaketa esanguratsurik bizitegirako ez diren lizentzien emakidan, obraren xedearen arabera. Soilik industriaren eta energiaren sektoreari lotutako lizentzien igoera txiki bat nabarmendu behar da: bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentzien %27,6 ziren 2018an, eta %28,4, berriz, 2019an, eta 2006tik izandako handienetako bat da.

Nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin eta arrantzarekin lotutako obra-lizentziei dagokienez, jarduera-talde minoritarioa izan arren, oro har, lizentziak emateko orduan duten parte-hartze erlatiboa sektore horren pisu ekonomikoa baino askoz handiagoa da. Hala, haren parte-hartze erlatiboa %10etik gorakoa izan da beti, 2017an izan ezik (%9,3), eta 2013an bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien %19,8ko balio maximora iritsi da. Hala ere, 2013 eta 2019 artean, partaidetza ehuneko 9 puntu baino gehiago murriztu da, 2013ko %19,8tik 2019ko %10,4ra.

4. grafikoa Bizitegitarako ez diren obra handiko lizentziak, obraren xedearen arabera (*). 1998-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2019


(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

2019an, aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak hobetzen jarraitzen du 2013an ikusitakoarekin alderatuta, baina oraindik oso urrun daude 2002-2011 aldirako aurreikusitako etxebizitza-kopuruetatik.

Epe luzeko analisiaren ikuspegitik, 2019. urtearen amaierarako aurreikusitako 5.870 etxebizitzek, 2018arekin alderatuta %5,2ko igoera izanik, 2014 eta 2018 artean erregistratutako jardueraren berreskurapena berresten dute. Hala ere, 2007 eta 2013 artean izandako beherakaden intentsitateak azaltzen du 2019an bizitegi-erabilerarako lizentziak emateari lotutako eraikuntza-jardueran inplikaturako etxebizitzaren kopuruak 2007koa baino %66 txikiagoa izaten jarraitzea (5.870 etxebizitza 2019an eta 17.250 2007an).

5. grafikoa Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera, EAEko obra handiko lizentzien arabera, urtez urte. EAE 2002-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2002 - 2019

Higiezinaren krisiaren ondorioak are handiagoak dira **eraikuntza berriko** etxebizitzetara dagokienez. Kasu horretan, azken urteetan aurreikusitako jarduketaren kopuruak nabarmen gora egin duen arren (+% 47,6 2015 eta 2016 artean, +% 3,2 2016 eta 2017 artean, +% 1,1 2017 eta 2018 artean eta +% 5,3 2018 eta 2019 artean), zifra oso urrun dago 2007an erregistratutako 16.322 etxebizitzetatik. 2007. urtearekin alderatuta, 2019an aurreikusitako jarduketak dituzten oin berriko etxebizitzaren bolumenak %71,3ko beherakada izan du.



4. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urtez urte. 2002-2019

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza %etan)

Urtea	Guztira		Eraikuntza berria		Birgaikuntza	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza
2002	11.748	-	11.171	-	577	-
2003	14.643	24,6	13.864	24,1	779	35,0
2004	15.137	3,4	13.995	0,9	1.142	46,6
2005	13.903	-8,2	13.146	-6,1	757	-33,7
2006	16.940	21,8	15.966	21,5	974	28,7
2007	17.250	1,8	16.322	2,2	928	-4,7
2008	10.820	-37,3	10.013	-38,7	807	-13,0
2009	7.991	-26,1	7.456	-25,5	535	-33,7
2010	7.515	-6,0	6.916	-7,2	599	12,0
2011	8.449	12,4	7.725	11,7	724	20,9
2012	4.377	-48,2	3.783	-51,0	594	-18,0
2013	3.235	-26,1	2.613	-30,9	622	4,7
2014	3.573	10,4	2.862	9,5	711	14,3
2015	3.722	4,2	2.889	0,9	833	17,2
2016	5.211	40,0	4.264	47,6	947	13,7
2017	5.264	1,0	4.401	3,2	863	-8,9
2018	5.582	6,0	4.449	1,1	1.133	31,3
2019	5.870	5,2	4.685	5,3	1.185	4,6
2007-2019 Aldakuntza	-11.380	-66,0	-11.637	-71,3	257	27,7


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2002 - 2019

Birgaitzeko obra handiko lizentziei lotutako etxebizitzak bilakaera positiboak, 2017an izan ezik, 2019an jarraitu zuen, 2007ko datuekin alderatuta %27,7ko igoera izan baitzuen. Izan ere, 2019an (1.185 etxebizitza) erregistratutako maximoa lortu da, 2004ko erregistroa 43 etxebizitzatan gaindituz.

2019an, Gipuzkoak eta Arabak berreskuratu egin zuten eraikuntza berriko eta birgaitzeko lizentziei lotutako etxebizitzak aurreikuspena.

Azken urteetan oin berria berreskuratu den arren, 2006/2007an zegoen eraikuntza-jarduerarekiko aldea nabarmena da lurralde historiko guztietan. Bizkaiak 2018an berreskuratutako jarduera galdu du, bai eraikuntza berriari bai birgaitzeari lotutakoa (-% 18,8 eta -% 3,2, hurrenez hurren, 2018 eta 2019 artean), eta nabarmen jaitsi da aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzak bolumena 2007 eta 2019 artean. Hala, 2019rako aurreikusitako 2.171 etxebizitzek %66,4ko jaitsiera suposatzen dute oraindik, 2007ko 6.469 etxebizitzekin alderatuta.

6 grafikoa Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera, obra handiko lizentzien arabera, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. EAE 2002-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika.. 2002 - 2019

Araba nabarmen suspertu da azken urtean (+% 36) eraikuntza berrietan eta birgaitzeari lotutako jarduketetan aurreikusitako etxebizitzari dagokienez (+% 19,3), baina 2007arekin alderatuta hiru lurraldeen beherakada handiena eskaintzen jarraitzen du oin berriko etxebizitzaren jarduketetan, %88ko beherakadarekin (2007an 6.090 etxebizitza zeuden aurreikusita, eta 2019an, berri, 733).

Era berean, Gipuzkoan gorakada nabarmena izan da azken urtean oin berriko etxebizitzaren (+%44,1) eta birgaitze-etxebizitzaren (+%7,5) aldean. Epe luzeagorako bilakaera bat egiten bada, Gipuzkoak 2007tik aurreikusitako eraikuntza berriko jarduketetan beherakada txikiena pilatu du (-%52,7).



5. Taula Aurreikusitako etxebizitzak lurralde historikoaren arabera, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urtez urte. 2002-2019

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza %etan)

Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Eraikuntza berria		Birgaikuntza		Eraikuntza berria		Birgaikuntza		Eraikuntza berria		Birgaikuntza	
	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza
2002	2.889		125		5.004		261		3.278		191	
2003	3.996	38,3	195	56,0	6.086	21,6	266	1,9	3.782	15,4	318	66,5
2004	4.164	4,2	231	18,5	6.432	5,7	412	54,9	3.399	-10,1	499	56,9
2005	2.632	-36,8	231	0,0	6.026	-6,3	275	-33,3	4.488	32,0	251	-49,7
2006	4.745	80,3	268	16,0	6.227	3,3	314	14,2	4.994	11,3	392	56,2
2007	6.090	28,3	277	3,4	6.469	3,9	184	-41,4	3.763	-24,6	467	19,1
2008	3.696	-39,3	147	-46,9	3.560	-45,0	390	112,0	2.757	-26,7	270	-42,2
2009	3.625	-1,9	207	40,8	1.564	-56,1	179	-54,1	2.267	-17,8	149	-44,8
2010	2.363	-34,8	143	-30,9	1.883	20,4	217	21,2	2.670	17,8	239	60,4
2011	2.445	3,5	173	21,0	3.274	73,9	349	60,8	2.006	-24,9	202	-15,5
2012	1.107	-54,7	125	-27,7	1.360	-58,5	257	-26,4	1.316	-34,4	212	5,0
2013	299	-73,0	195	56,0	1.703	25,2	236	-8,2	611	-53,6	191	-9,9
2014	292	-2,3	157	-19,5	1.590	-6,6	356	50,8	980	60,4	198	3,7
2015	338	15,8	181	15,3	1.277	-19,7	424	19,1	1.274	30,0	228	15,2
2016	414	22,5	210	16,0	2.446	91,5	418	-1,4	1.404	10,2	319	39,9
2017	514	24,2	199	-5,2	2.330	-4,7	427	2,2	1.557	10,9	237	-25,7
2018	539	4,9	228	14,6	2.674	14,8	560	31,1	1.236	-20,6	345	45,6
2019	733	36	272	19,3	2.171	-18,8	542	-3,2	1.781	44,1	371	7,5
2006-2019												
Aldakuntza	-4.012	-84,6	4	1,5	-4.056	-65,1	228	72,6	-3.213	-64,3	-21	-5,4
2007-2019												
Aldakuntza	-5.357	-88,0	-5	-1,8	-4.298	-66,4	358	194,6	-1.982	-52,7	-96	-20,6

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2002 – 2019



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia: Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

- a. **Oin berriko obra.** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra.** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira:

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2019 urtea

Emaiza nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	11
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	15
TAULEN AURKIBIDEA	17
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	17

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula	Obra handiko lizentziak urteka, obra-motaren arabera. 1998-2019	2
2. Taula	Eraikuntza berriko eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera, obra-motaren arabera. 1998-2019	5
3. Taula	Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera (*) 1998-2019	7
4. taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urtez urte. 2002-2019	12
5. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak lurralde historikoaren arabera, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urtez urte. 2002-2019	14

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa	Obra handiko lizentzia kopurua obra motaren eta urtearen arabera. 1998-2019	3
2. grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2019	6
3. grafikoa	Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera. 1998-2019	8
4. grafikoa	Bizitegitarako ez diren obra handiko lizentziak, obraren xedearen arabera (*). 1998-2019	10
5. grafikoa	Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera, EAEko obra handiko lizentzien arabera, urtez urte. EAE 2002-2019	11
6 grafikoa	Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera, obra handiko lizentzien arabera, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. EAE 2002-2019	13

Informazio gehiagorako:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak

www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus